MUTRIKUKO UDALERRIAN KOKATUTAKO SATURRARAN HONDARTZAN, SANEAMENDU SISTEMARIK EZ DAGOENEZ, KOMUNEN ETA KANTINAREN ZERBITZUA ESKAINTZEKO INSTALATUTAKO HOBI SEPTIKOTIK DATOZEN HONDAKINAK JASOTZEKO, GARRAIATZEKO ETA HONDAKIN UREN ARAZTEGIAN HUSTU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA.

3. Dokumentua – Administrazio Baldintza Partikularren Plegua

1. XEDEA

Administrazio Baldintza Partikularren Plegu honen xedea da MUTRIKUKO UDALERRIAN KOKATUTAKO SATURRARAN HONDARTZAN, SANEAMENDU SISTEMARIK EZ DAGOENEZ, KOMUNEN ETA KANTINAREN ZERBITZUA ESKAINTZEKO INSTALATUTAKO HOBI SEPTIKOTIK DATOZEN HONDAKINAK JASOTZEKO, GARRAIATZEKO ETA HONDAKIN UREN ARAZTEGIAN HUSTU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA EGITEKO GIDA GISA ERABILIKO DIREN BALDINTZA TEKNIKOAK definitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

Mutrikuko Udalerrian kokatutako Saturraran hondartzan, saneamendu sistemarik ez dagoenez, komunen eta kantinaren hondakin urak jasotzeko instalatutako hobi septikoaren hustuketa eta garbiketa zerbitzua da.

Hobi septikoaren edukiera 26 m^3-koa da, eta kamioi zisternadun ibilgailuentzat sarbidea dago instalaziora. Instalazio horrek bakar-bakarrik komuneko eta kantinako hondakin urak jasotzen ditu eta bildutako hondakin urak kudeatzaile baimendu baten bidez tratatuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Erabat debekatuta dago aipatutako bi hornidura horiez gain, bestelako jardueretatik datozen hondakinak sartzea.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA

3.1. EGIN BEHARREKO LANA ETA KONTRATISTAK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK ETA TXOSTENAK.

Lizitazio honen adjudikatuak Mutrikuko Udalarekin une oro koordinatuta lan egingo du, eta zerbitzua eguneko 24 orduetan emateko moduan egon beharko du, urgentziaren bat gertatuz gero berehala esku hartu ahal izateko.

Deposituak Mutrikuko Udalak instalatutako sentsorea izango du eta sentsore horrek deposituaren okupazio mailaren berri emango du. Kontratistak etengabe sentsore horren jarraipena egingo du eta asteburuari begira deposituaren okupazio maila %50ekoa baino txikiagoa izan beharko da. Horrez gain, momentu oro deposituaren edukierak ezingo du %80a gainditu. Aipaturiko okupazio maila bermatu ahal izateko, lizitatzaileak astean bi aldiz eskaini beharko du zerbitzua, gutxienez.

Sentsorearen funtzionamendu okerra gertatuz gero, kontratistak instalazioaren egoera kontrolatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, deposituak gainezka egin ez dezan eta ingurumen-kalterik sor ez dadin.

Zerbitzuaren maiztasuna beharraren araberakoa izango da, hau da, eguraldiaren, okupazioaren eta instalazioaren erabileraren arabera aldatu ahal izango da. Hondartza denboraldiko zerbitzua denez, eguraldiak eragin zuzena du instalazioaren erabileran, ondorioz, baliteke hustuketak aurreikusitakoa baino maiztasun handiagoz edo txikiagoz egin behar izatea, dena den, gutxienez astean bi aldiz eskainiko da zerbitzua. Horrenbestez, plegu hauetan prezio unitarioa ezarri da eta hustutako metro kubiko bakoitzeko prezio hori ordainduko da.

Hustuketak gauzatzen diren bitartean, kontratistak beharrezko seinaleztapena eta segurtasun perimetroak ezarri beharko ditu hondartzako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Lan horiek goizeko 10:00ak baino lehen egingo dira, erabiltzaileen presentzia txikiagoa den uneetan, eta Mutrikuko Udaltzaingoari aldez aurretik jakinaraziko zaio, kamioiak aparkalekuko trafikoa oztopa ez dezan. Ordutegia urgentzia kasuetan soilik aldatu ahal izango da eta orduan ere Udaltzaingoari abisatu beharko zaio.

Kontratistak hondakinak jasotzeko baimendutako araztegi batekin koordinatu beharko du bere jarduera, eta gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazi beharko dio hondakinen deskarga onar dezan, horrela, itxarote denbora aurreztea lortu nahi da. Urgentziaren bat sortuko balitz, berriz, ahalik eta lasterren jarriko da harremanetan kudeaketa errazteko.

Kontratistak Mutrikuko Udalari hilero egindako hustuketei buruzko txostenak aurkeztuko dizkio.

Aurkeztutako eskaintzak zerbitzua behar bezala emateko behar diren baliabide tekniko eta material guztiak barne hartu beharko ditu. Hau da, kontratistak bere kontura eta bere bitartekoekin emango du zerbitzua.

3.1.1. HILEKO TXOSTENA

Kontratuak irauten duen hilabeteetan kontratistak hileko txostena egingo du, zerbitzuaren kalitatea eta kontratuaren betetze maila egiaztatzeko. Txostenak honakoak jasoko ditu: eguna, ordua, maiztasuna, badagokio abisua jaso denetik erantzun denbora, hustutako benetako bolumena, ingurunearen txukuntasuna, bai eta sor daitekeen edozein anomalia edo intzidentzia ere.

Txosten horiek Mutrikuko Udalak harremanetarako esleitutako pertsonari igorriko zaizkio hilabete bakoitza amaitu eta hiru lan egun igaro baino lehen.

3.2. ZERBITZUAREN PREZIOA

Kontratistari ordainduko zaio hustutako hondakin ur bakoitzeko prezio unitarioa, metro kubiko bakoitzeko, eta prezio horrek barne hartzen du zerbitzuaren exekuzio guztia: jasoketa, garraioa eta hondakinak baimendutako araztegian kudeatzea.

Prezio unitario hau honako da: 91,90 € / m^3 (BEZ gabe).

Ekainaren 15erako enpresa adjudikatua erabakita ez balitz, data horretatik aurrera egin beharreko hustuketak plegu hauetan zehaztutako prezioaren arabera egingo dira.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratuaren kudeaketa behar bezala egiteko zein Mutrikuko Udalari lanak egiaztatzeko eta emaitzak kontrolatzeko asmoz, beharrezkoak diren giza baliabideez eta bitarteko materialez hornitutako antolamendu-egitura izango du kontratistak.

Era berean, gutxienez, jarraian zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko ditu, bere kontura eta bere kostua bere gain hartuta, kontratuaren zenbateko ekonomiko osoaren barruan.

4.1. GIZA BALIABIDEAK

- Kontratuaren arduradun bat, erdi- edo goi-mailako titulazio teknikoa duena, kontratuaren gaiarekin bat datorren espezialitate batekoa, eta mota horretako lanak egiten 3 urtetik gorako esperientzia duena. Kontratistaren plantillan integratuta egongo da, eta kontratistaren ordezkari gisa jardungo du, Kontratuaren Zuzendaritzaren aurrean solaskide eta lanen arduradun gorena izango da.

- Beharrezko giza baliabideak, bai kopuruan bai eta kualifikazioan ere. Bi urteko esperientzia izango dute hobi septikoen hustuketan, garbiketan eta garraioan.

4.1.1. LANGILEEN SUBROGAZIOA

Ez da aplikagarria.

4.2. BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren materialak, besteak beste, erremintak, makineria, edukiera egokiko ibilgailuak, kamioi zisterna txikiak zein handiak eta norbera zein taldea babesteko ekipamenduak.

- Bulegoko lokalak eta aldagela propioak edo alokatuak, kontratua betetzeko jokoan jarri beharreko giza baliabideen neurriarekin bat datozenak (Mutrikuko Udalak ez du lokalik jarriko langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintaren, makineriaren edo ibilgailuen gordailu edo zaintzarako ere, eta esleipendunaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sor daitezkeen gastu guztiak).

- Lan-karga jasotzeko eta emaitzak eta txostenak bidaltzeko bitarteko informatikoak (softwarea eta hardwarea). Telefonia finkoa eta mugikorra, lanak garatzen eta Mutrikuko Udalarekin komunikatzen laguntzeko. Beren bulegoen eta Mutrikuko Udalaren arteko ahots-, datu- eta seinale-komunikazioen kuotak.

Mutrikuko Udalak ez du bere gain hartuko kontratistaren baliabide materialek jasan ditzaketen lapurreten edo kalteen erantzukizuna. Beraz, egokitzat jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu bere ekipoen segurtasuna bermatzeko lanak amaitu arte.

5. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan ezarritakoa bete beharko du.

6. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratistaren erantzukizunpean egikarituko da kontratua, plegu honetan adierazitako baldintzetan.

Kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko araudi eta lege-araudi guztiak bete behar ditu kontratistak, bai eta Mutrikuko Udalak ezar ditzakeen prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko zalantzak izanez gero, informazioa eskuratzeko, kontratuaren zuzendaritzara jo beharko du kontratistak.

6.1. KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago Mutrikuko Udalaren instalazioan inolako jarduerarik hastea kontratuaren zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratua ekainaren 15ean hasiko da eta irailaren 15ean amaituko da. Dena den, beharra egongo balitz, baliteke bi astez luzatzea kontratua, hau da, urriaren 1era arte.

Kontratuaren indarraldia amaitu ondoren amaituko da kontratua.

6.2. PROZEDURA

Kontratistak, bere kabuz eta bitartekoekin, Mutrikuko Udalaren instalaziora eramango ditu kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta bitarteko materialak.

6.3. LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio baldintza-orri honen xede diren lanak koordinatzea, bai eta zerbitzu osagarrien enpresekin koordinatzea ere.

Mutrikuko Udalak sustatu eta erraztu egingo du erakundeak berak kontratatutako enpresek beren zerbitzuak modu sinergikoan eta koordinatuan eman ahal izatea.

Kontratistaren lana aldi berean egiten diren beste lan batzuekin oztopatzen denean, kontratuaren zuzendaritzak baimentzen duenean bakarrik hasiko da gauzatzen.

6.4. KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratuaren arduradun batek zuzenduko du kontratua, eta hura arduratuko da kontratuaren betetze-mailaren zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratuaren zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta gauzatutako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen ausazko ikuskapenak egingo ditu.

Kontratuaren zuzendaritzak eskatuta, enpresa esleipenduneko teknikariak bertan egongo dira lan garrantzitsuak egiten ari diren bitartean.

6.5. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lan horiek egiteko ardura duten langileek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeria, Araudi eta Erregelamendu guztiak bete beharko dituzte.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bai bereak, bai azpikontrata ditzakeen enpresenak.

Kontratistak Mutrikuko Udaleko Hirigintza Sailaren eskakizun guztiak bete behar ditu, Laneko Arriskuen Prebentzioari dagokion arloan.

Prebentzio-jarduera guztiak Mutrikuko Udaleko Hirigintza Sailak baliozkotu behar ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6. INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratuko diren langileek aplikatu beharreko Ingurumenari buruzko Legedi, Araudi eta Erregelamendu guztia bete beharko dute beti.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai bereak, bai azpikontrata ditzakeen enpresenak.

Kontratistak Mutrikuko Udalaren Hirigintza Sailaren betekizun guztiak bete beharko ditu, eta haiek betetzen direla frogatzeko ebidentziak eman beharko ditu. Hain zuzen ere, kontratistak egiaztatu beharko du hondakinak baimendutako araztegian entregatu direla, dagokion gestio agiriaren edo emate egiaztagirien bidez.

Ingurumenarekin lotutako jarduera guztiak Mutrikuko Udalaren Hirigintza Sailak baliozkotu behar ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6.1. GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Enpresa esleipenduna behartuta dago kontratu honen xede diren lanak egiteko eskura dituen instalazio eta esparruak garbitasun-egoera onargarrian edukitzera.

Kontratistaren ardura da bere lanak egitean sortzen dituen hondakin guztiak kudeatzea. Indarrean dagoen eta aplikatu behar den legeriaren arabera kudeatu behar dira hondakinak, eta Mutrikuko Udalaren eskura egon behar dute haien kudeaketa egokia egiaztatzen duten dokumentuen ebidentziek.

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez bada, kontratuaren zuzendariak hirugarren bati aginduko dio betebehar horiek betetzeko. Gastu horiek kontratistari deskontatuko zaizkio.

6.7. KUDEAKETA SISTEMAK (KALITATEA, INGURUMENA ETA LANEKO SEGURTASUNA)

Lizitatzaileak bere erakundeak kontratuaren baldintzak betetzeko duen gaitasuna ziurtatuko du, kalitate, ingurumen eta laneko segurtasunaren arloko kudeaketa-sistemen bidez. Horretarako, honako ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dira, edo haien baliokideak:

- **ISO 9001**: kalitatearen kudeaketa sistema.
- **ISO 14001**: ingurumenaren kudeaketa sistema.
- **ISO 45001**: laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketa sistema.

Ziurtagiri horiek egiaztatutako ziurtapen-erakunde batek emandakoak eta indarrean daudenak izan beharko dira, eta kontratuaren xedearekin lotutako jarduerak barne hartu beharko dituzte.

Enpresak aipatutako ziurtagiririk ez badu, lizitatzaileak bere kudeaketa-sistemak frogatzen dituzten neurri edo dokumentazio baliokideak aurkeztu ahal izango ditu. Kasu horretan, Mutrikuko Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztapen edo kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.8. BERMEA

Kontratistak Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan ezarritakoa bete beharko du.

6.9. ZIURTAGIRIAK

Hilero, egindako hustuketen arabera, kontratistak gauzatutako lanei dagokien ziurtagiria aurkeztuko dio Mutrikuko Udalari.

Amaitu gabeko lanek, zati batean amaitutakoek edo gaizki egindakoek hasierako prezioaren proportzioan gutxitzea eragin dezakete.

7. KONTRATUAREN BERARIAZKO BALDINTZAK

“Ez da aplikatzekoa”.

8. LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRI TEKNIKOAK

Aurkeztu beharreko “Dokumentazio teknikoa” administrazio-klausulen agiriari dagokion atalean zehazten da.

Mutrikun, 2026ko apirilaren 7an.

Energia teknikaria

Jone Osinalde Bilbao

JONE OSINALDE BILBAO - 45168494J

Firmado digitalmente por JONE OSINALDE BILBAO - 45168494J
Fecha: 2026.04.16 08:14:10 +02'00'

Mutrikuko Udala

Alkatea	Idazkaria
Ainhize Azpiazu	Miren Jasone Longaray Barruetabeña

Mutrikuko Udala

Firmado digitalmente por 15379863Q AINHIZE AZPIAZU (R: P2006000J)
Fecha: 2026.04.16 10:34:05 +02'00'

Mutrikuko Udala

MIREN JASONE LONGARAY BARRUETABENA - 30648055A
2026.04.13 13:15:11 +02'00'

Mutrikuko Udala

EGINBIDEA: Nik, Idazkaritzak, egiten dut, plegu hau Alkatetzaren 2026ko apirilaren 7ko 63/2026 Dekretuaren bidez onartu dela jasota gera dadin.

Idazkaria

Miren Jasone Longaray Barruetabeña